SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

# 2016-2019 HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

## LABURPENA

2016ko ekaina

# Misioa, Bisioa eta Balioak

**MISIOA**

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren erronka, interes eta beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten bazkide, erakunde publiko, gizarte eragile, zientzia eragile eta bestelako eragileen soziolinguistika alorreko baliabide eta gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako elkarlanean ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuak garatzen ditu, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

**BISIOA**

Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika arloko I+G+Bko erreferentziazko agente izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz.

**BALIOAK**

- **Zientifikotasuna:** Metodo zientifikoan oinarrituta autonomiaz jarduten du.
- **Elkarlana:** Osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizarte-konpromisoa:** Euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia. Eragile ezberdinekin elkarlanean egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez.

# Interes taldeak

Interes taldeen erronka, interes eta beharrek **bat egiten duten gunea** da SLKren lehentasunezko lan eremu.

Jarduerak eragin zuzena du euskara biziberritzeko prozesuan eta **eragina biderkatu** egiten da interes taldeen eraginari esker.




SLKren gobernantza konplexua da, **oreka ezegonkorren** bila etengabe aritu behar da.

# ORGANIGRAMA BERRIA




*Batzorde zientifikoa plangintzaldi honetan sortzeko asmoa dago.

# Ildo eta helburu estrategikoak

ILDO ESTRATEGIKOAK

- Soziolinguistika arloko ikerketa, garapen eta berrikuntza erreferentziazko agente bihurtzea.
- Erakundearen kudeaketa gaitasunak indartzea.
- Erakundearen iraunkortasun ekonomikoa indartzea.



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

# 2016-2019 Hausnarketa estrategikoa

| LERRO ESTRATEGIKOAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK | PROIEKTU ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| **SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO I+G+Bko ERREFERENTZIAZKO AGENTE** | Interes taldeekiko orientazioa: gaitasun soziolinguistikoak areagotzea | |
| | Elkarlanean balio erantsi handiko I+G+b eta EK proiektuak egitea | Nazioartekotzea |
| | **Antolakuntza eredua zehaztu eta garatzea** | **Antolakuntza eredua** |
| **KUDEAKETA GAITASUNAK ETA ANTOLAKETA** | **Pertsonen gaitasun eta ardura maila handitzea** | Pertsonen garapenaren kudeaketa |
| | | **Formazio plana** |
| | | **Barne egitura** |
| | **Proiektuak modu eraginkorrean kudeatzea** | **Proiektuak kudeatzeko sistema** |
| | Interes taldeekiko komunikazioa hobetzea | Aliantzen erlazioen kudeaketa |
| | | Bazkideen erlazioen kudeaketa |
| | | Erakunde publikoen erlazioen kudeaketa |
| | | **Ezagutzaren zaintza** |
| | | Bulegoko barne komunikazioa indartzea |
| | | **Kanpo komunikazioa indartzea** |
| **IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA** | **Finantza egonkortasuna: dirusarrera eta gastuen arteko oreka indartzea** | Diru iturrien dibertsifikazioa |
| | | **Hitzarmenak sendotu** |

Lehenetsitakoak **letra lodiz**. Lehentasun gutxienekoak fondo gorrixkaz.

2016-2019 Hausnarketa estrategikoa